



Berdintasun Kontseiluaren komunikatua 2020ko azaroaren 25a

Azaroaren 25a indarkeria matxista ororen aurkako aldarrikapen eta sentsibilizazio eguna da. Herritar guztiei gogorarazi nahi diegu, beren bikotekideek edo bikotekide ohiek 38 emakume hil dituztela aurten Espainiako estatuan, eta 1.071 zenbatzen hasi zirenetik, 2003tik. 2019. urtean, ofizialki, 55 emakume hil zituzten bikotekideek edo bikotekide ohiek. Hildako adingabeak 37 dira 2013tik, erregistro ofizialean sartu zirenetik, eta 237 haur geratu dira umezurtz.

2015ean, astungarri bat sartu zen, *Istanbulgo Hitzarmena* kontuan hartuta; hau da, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren akordioa. Hitzarmenaren arabera, "Emakumeek eta neskek gizonek baino arrisku handiagoa dute generoan oinarritutako indarkeria jasateko". Hamarkada bat seme-alabak barne hartzeko.

Genero indarkeria horizontalean (emakumeei eta haien familia inguruneei dagokienez) eta bertikalean (haien ondorengoei dagokienez) proiektatzen da, eta etorkizuneko belaunaldietan ere gerta daiteke, bizipen horren ondorioak haien bizitzan zehar presente izango baitira.

COVID19ren pandemiak azpimarratu egin du gure gizarteko esparru guztietan oraindik ere dagoen genero aldea; izan ere, emakumeak protagonista dira, bai osasun sektorean, bai zaintza sektorean, bai gizarte sektorean, batez ere emakume langileen kolektiboa delako nagusi funtsezko zerbitzuetan.

Osasun krisiari aurre egiteko mugikortasuna murrizteko neurriek areagotu egin dute genero indarkeriaren arriskua, eta egoera bereziki ahul eta zaurgarrian dago emakumea konfinamendu egoeraren ondorioz. Konfinamenduaren lehenengo fasean, euste zerbitzuek eskari gehiago erregistratu zituzten, eta, deseskalatze garaian, salaketa kopuruak gora egin zuen. Aholkularitza juridikoko eta psikologikoko zerbitzuek emakume askori ematen diete arreta, banantze prozesuei, buruko gaitzei eta abarrei dagokienez.

Horregatik, azaroaren 25erako gure aldarrikapena indarkeria matxisten aurkako salaketan oinarritzen da, eta gogorarazten dugu genero ikuspegia aplikatzea funtsezkoa dela, eta presente egon behar duela eskuratutako eskubideetan atzerapausoak gertatzeko arriskua saihesteko orduan, ez daitezen desberdintasunak eta diskriminazioak areagotu; eta, horregatik, emakume prekarioak eta kalteberak bizitzaren erdigunean babesteko politikak egin behar ditugu. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko berariazko zerbitzuek egiturazkoak izan behar dute, eta, horretarako, aurrekontuak izan behar dituzte; beti bezala, azken urteetan egin den prebentzio lanarekin bat etorriz.



COMUNICADO DEL CONSEJO DE IGUALDAD 25 DE NOVIEMBRE 2020

El 25 de Noviembre es un día de reivindicación y de sensibilización contra todo tipo de violencias machistas. Queremos recordar, a toda la ciudadanía, que 38 mujeres han sido asesinadas por sus parejas o ex-parejas en lo que va de año en el estado español y 1.071 desde que empezaron a contabilizarse, en 2003. El año 2019 se cerró, oficialmente, con 55 mujeres asesinadas a manos de sus parejas o ex-parejas. Las y los menores asesinados son 37 desde 2013, cuando entraron también en el registro oficial quedando huérfanos 237.

En 2015, se incluye un agravante, atendiendo al Convenio de Estambul; el acuerdo del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica. El convenio reconoce que "las mujeres y niñas están más expuestas que los hombres a un riesgo elevado de violencia basada en el género".
UNA DÉCADA PARA INCLUIR A LOS HIJOS.

La violencia de género se proyecta en horizontal (hacia las mujeres y sus entornos familiares) y en vertical (hacia sus descendientes), pudiendo reproducirse en futuras generaciones porque las secuelas de esta vivencia estará presentes a lo largo de sus vidas.

La pandemia de la COVID19, ha resaltado la brecha de género que sigue existiendo en todos los ámbitos de nuestra sociedad, ya que las mujeres son las protagonistas tanto en el sector sanitario, como en el sector de cuidados y el sector social, por ser un colectivo mayoritariamente de mujeres trabajadoras, en servicios esenciales.

Las medidas de restricción de movilidad para afrontar la crisis sanitaria, ha intensificado el riesgo de violencia de género, encontrándose en una especial situación de vulnerabilidad e incertidumbre derivado de la situación de confinamiento. En una primera fase los servicios de contención registraron más demandas y en la des-escalada los picos de denuncias aumentaron. Los servicios de asesoría jurídica, psicológica están atendiendo a muchas mujeres en relación a procesos de separaciones, malestares mentales etc.

Por ello, nuestra reivindicación para el 25 de noviembre se basa en la denuncia contra las violencias machistas y el recordatorio de que la aplicación de perspectiva de género es fundamental y debe estar presente a la hora de evitar el riesgo de que se produzcan retrocesos en los derechos adquiridos, aumentando las desigualdades y las discriminaciones, y por ello tenemos que realizar políticas que pongan la protección de mujeres precarias y vulnerables en el centro de la vida. Los servicios específicos para la Atención a Mujeres Víctimas de Violencia Machista deben ser estructurales y para ello es necesario dotarlos de presupuestos económicos. Como siempre en consonancia con el trabajo preventivo que se ha desarrollado durante los últimos años.